

---

# 2018



LAZKAOKO  
UDALA

---

## LEHEN SEIHILEKO KUDEAKETA GESTIÓN PRIMER SEMESTRE

---

### Lehen sei hilekoaren memoria

Hurrengo orrietan 2018ko lehen sei hilabetetan Lazkaoko Udalak gauzatu duen kudeaketaren berri ematen da. Informazioa hiru multzotan banatuta azaltzen da: antolaketa, ingurua eta pertsona. Banaketa honen oinarrian pertsona dago, herritar bakoitza, eta bere inguruan egiten den antolaketa zehaztea da helburua: pertsona mugitzen den eremua, pertsona horri udaletik egiten zaion eskaintza, eta eskaintza hori egiteko udalak erabiltzen dituen erremintak hartzen dira kontuan.

### Memoria del primer semestre

En las siguientes páginas se da cuenta de la gestión que el Ayuntamiento de Lazkao ha desarrollado en el primer semestre de 2018. Esta información se presenta dividida en tres grupos: organización, entorno y persona. La distribución mencionada tiene como eje a la persona, a cada ciudadano, y el objetivo es detallar la gestión que el ayuntamiento ofrece a cada ciudadano y las herramientas que se utilizan para poder ofrecer esos servicios.

# 01 ANTOLAKETA ORGANIZACIÓN

## 7.092.842

### 2018 HASIERAKO AURREKONTUA

Abenduaren 19an onartu zen.

### PRESUPUESTO INICIAL 2018

Aprobado el 19 de diciembre de 2017.

### ➔ Aurrekontuaren kudeaketa / Gestión presupuestaria

2017ko ekitaldiaren itxieran 5.130.579,27€-ko diru gerakina geratu zen. 2018ko martxoaren 22ko osoko bilkuran onartu zen. 2017ko ekitaldiaren itxieran Diruzaintzako gerakina ezagutu ondoren, inbertsio berriak egiteko hainbat kreditu aldaketa kudeatu dira. Kreditu aldaketa horietarako, 2.155.167 euro gerakinetik bideratu dira, eta 572.683€-ko diru sarrera berriak aurreikusi dira.

Al cierre del ejercicio presupuestario de 2017, aprobado el 22 de marzo, el remanente de tesorería fue de 5.130.579,27€. Una vez conocido el remanente de tesorería existente al cierre del ejercicio 2017, se ha procedido a realizar distintas modificaciones de crédito, para acometer nuevas inversiones. Para estas modificaciones se ha dispuesto de 2.155.167 euros del remanente y se han previsto 572.683 euros como nuevos ingresos.

INBERTSIOAK INVERSIONES	KANTITATEA CANTIDAD
Kiroldegiko igerileku estalia eta aldagelak berritze-ko proiektua idaztea / Redacción del proyecto de remodelación de la piscina cubierta y los vestuarios.	140.000€
Ikastola. Kaldera gelen egokitzea eta gasoiletik gagera pasatzea. / Ikastola: Sala de calderas y sustitución de gasoil a gas.	102.850€
Ikastola. Kirol kantxa bat estaltzea Ikastola: Cubrición de una cancha deportiva	500.000€
Hirigoien 2-6 urbanizazio proiektua / Proyecto de urbanización Hirigoien 2-6	125.000€
Gurutze 1-2 urbanizazio proiektua / Proyecto de urbanización Gurutze 1-2	820.000€
Iturgaitzaga: lur sail trukaketa / Iturgaitzaga: permuta parcelas	290.000€

INBERTSIOAK INVERSIONES	KANTITATEA CANTIDAD
Udal lurren erosketarako Compra de suelo municipal	600.000€
Herriko bide eta parkeen mantenua Mantenimiento parques y caminos	150.000€
SARRERAK INGRESOS	KANTITATEA CANTIDAD
Iturgaitzaga: lur sail trukaketa Iturgaitzaga: permuta parcelas	285.464€
Gurutze: sarrerak Gurutze: ingresos	27.219€
Larreategiko bi partzelen salmenta Larreategi: venta de dos parcelas	260.000€

### ➔ Diru sarrerak / Ingresos

2018ko lehen seihilekoko sarrerak 3.850.747 eurokoak izan dira. Sarrera nagusia Fondo Foralarena izan da: 1.812.996€.

Los ingresos materializados durante el primer semestre han sido de 3.850.747 euros. La cantidad más importante corresponde al Fondo Foral: 1.812.996€.

PROIEKTUA/ PROYECTO	KANTITATEA/CANTIDAD
Hiri hondasunak / Bienes inmuebles	829.192€
Ibilgailuen gaineko zerga / Impuesto municipal	399.976€
Hondakinak / Basuras	192.005€

PROIEKTUA/ PROYECTO	KANTITATEA/CANTIDAD
Estolderia / Alcantarillado	107.218€
Ura / Agua	49.589€
Kirol instalazioak / Instalaciones deportivas	254.812€

## → Ez ohiko diru laguntzetatik lortutako sarrerak Ingresos obtenidos de ayudas extraordinarias

- Aurrezpen energetikoa gauzatzeko egitasmoak gauzatzearagatik (EEEk emanda).  
Por ejecutar actuaciones de ahorro energético (concedida por EVE).
- Bidegorri sarea garatzen jarraitzeko laguntza (Aldundiko mugikortasun sailak emanda).  
Para seguir desarrollando la red de bidegorris (concedida por el departamento de Movilidad de la diputación).
- Elurra kentzeko pala erosteko laguntza (Goimen).  
Para la compra de una pala para retirar nieve (Goimen).

14.203€

34.228€

2.618€

## → Udalak emandako laguntzak eta ekarpenak Ayudas y aportaciones realizadas por el Ayuntamiento

Goieki	20.432€*
Goimen	4.071€*
Eudel	1.503€
Goitur	7.619€
Enirio Aralar	1.572€
Tolosako hiltegia / Matadero Tolosa	2.223€
Ikastola	29.000€*
LTX Musika Eskola	50.000€
Goierri Telebista	5.559€*
Goierriko Hitza	5.559€*
Caritas: etorkinak gizarteratzeko programak Caritas: programa integración de inmigrantes	2.810€
Beneditarren fundazioa	22.000€
Jubilatu elkarte / Asociación jubilados	4.771€
Lau Katu	1.000€
Goierriko Rallysprinta	1.300€
Ezinduei laguntzak / Ayudas a discapacitados	1.092€
Merkataritza / Comercio	5.912€
San Juan Zubierreka	543€
LTME Aste Kulturala	4.737€
Herritarrei festetako hainbat ekintza antolatzeagatik A ciudadanos por las actividades de fiestas	28.964€
Dantzari Txiki Eguna	2.091€
Triatloi eskolarra	475€

\* Urteko laguntzaren %50  
\* 50% de la ayuda anual

## → Deialdiak / Convocatorias

- **Iparra-Hegoa:** Garatze bidean dauden herrialdeetara bideratutako proiektuei zuzendutako laguntzak. Guztira **52.000** euroko partida bat onartu du udalak. **11** proiektu aurkeztu dira.  
**Norte sur:** Ayudas destinadas a proyectos de desarrollo en el tercer mundo. En total se ha aprobado una partida de **52.000** euros. Se han presentado **11** proyectos.
- **Kooperante gazteentzat beka:** Azken hiru urtetan bezala, aurtan ere kooperazio proiektu bat garatu nahi duten gazte lazkaotarrei zuzenduta dago. Eskaerak egiteko epea irekita dago.  
**Beca Jovenes Cooperantes:** Al igual que en los últimos tres años, se ha abierto la convocatoria destinada a jóvenes lazkaotarras que desean llevar a cabo una experiencia de cooperación. El plazo de inscripción está abierto.
- **Merkataritza eta ostalaritza** alorrean ireki diren aktibitate berriei zein berrikuntzak egin dituztenei zuzendutako laguntzak. Deialdia urte osoan irekita dago.  
Implantación de nuevas **actividades comerciales y hosteleras**, así como para las reformas y mejoras en las mismas. La convocatoria está abierta a lo largo de todo el año.

**52.000€**

**6.000€**

**10.000€**

- **Etxebizitza alokairurako laguntzak:** Herriko gazteei zuzenduta, etxebizitzaren alokairurako laguntzak onartu ditu udalak aurtan. **18** eta **35** urte bitarteko gazteei zuzenduta daude, eta urte osoan zehar egin daiteke eskaera.  
Ayudas para el pago del alquiler de la vivienda: El Ayuntamiento ha aprobado este año una nueva ayuda dirigida a los jóvenes de entre 18 y 35 años de Lazkao para el pago del alquiler. La petición se puede realizar durante todo el año.
- **Herri baratzetako deialdia:** Aurtengo deialdia egin ondoren **11** izan dira baja eman dutenak, eta **11** erabiltzaile berri sartu dira. Guztira, **30** baratzte erabiltzen dira.  
Huertas municipales: Después de realizar la convocatoria de este año, han sido **11** los que se han dado de baja. Los nuevos usuarios son **11**. En total, se utilizan **30** huertas.

**20.000€**



## → Lizitazioa eta lehiaketa nagusiak / Principales licitaciones y concursos

Herri argiteriaren mantenu zerbitzua Mantenimiento alumbrado público	<b>68.970€</b>	Udaletxeko teilatua egokitzeko proiektua Refuerzo tejado Casa Consistorial	<b>130.006€</b>
Arieriako ustiapena Explotación del Areria	<b>42.354€</b>	Larreategin partzelak besterenganatzeko proiektua /Subasta enajenación parcelas Larreategi	<b>260.000€</b>
Ikastola: kirol kantxa bat estaltzea Ikastola: cubrición cancha deportiva	<b>413.222€</b>	Iturgaitzagan partzelak besterenganatzeko lehiaketa / Concurso enajenación parcelas Iturgaitzaga	<b>4.480.000€</b>
Ikastola: kaldera gela + gasera pasa Ikastola: sala calderas + sustitución a gas	<b>57.939€</b>	Lazkao Lantzen: Iturgaitzagako hainbat fase / Lazkao Lantzen: Distintas fases urbanización Iturgaitzaga	<b>866.364€</b>
Gurutze 1-2 urbanizazio proiektua Gurutze 1-2 proyecto urbanización	<b>816.635€</b>		
Kiroldegia: igerilekua + aldagelak proiektua idaztea / Polideportivo: Redacción proyecto piscinas + vestuarios	<b>73.810€</b>		



## → Pertsonal deialdiak / Convocatorias de personal

### Bailara mailako enplegu plana

Goiekitik koordinatutako plan honen barruan, Lazkaon lehen sei hilabetetan bi pertsona kontratatu dira, obra eta mantenu lanak egiteko. 2018-2019 ekitaldirako ere programa bera landuko da. 2018rako bezala, bi kontratazio aurreikusten dira. Denera, bailara guztian, 18 kontratazio izango dira. 18 kontratazio hauen kostua 2018-2019 programarako 265.501 eurokoa izango da. 201.155 euroko laguntza emango du Lanbidek. Lazkaon 30.500 euro inbertituko dira eta 22.350 euroko diru sarrera espero da.

### Zerbitzuetako koordinatzaile arduraduna kontratatzeko oposizio lehiaketa deialdia

Lehiaketara aurkeztuko direnek Arkitektura Teknikoko gradua edo Ingenieritza Zibileko gradua izan beharko dute. Hirugarren hizkuntza eskakizuna eskatuko da. Hautagaiek ariketa teorikoa, praktikoa, proba psikoteknikoa eta elkarrizketa egin beharko dituzte. Izandako esperientzia eta egindako ikastaroak kontuan hartuko dira.

### Izapidetze administratiboen eskuliburua

Eudelekin eta IVAP-ekin elkarlanean, Lazkaon ematen diren izapidetze administratiboen inguruko eskuliburua eguneratzeko prozesuarekin hasi da udala. Proiektu honek 9 hilabete inguruko iraupena izango du, eta Ibarako, Usurbilgo eta Ormaiztegiako Udalekin elkarlanean egingo da.

1993an Lazkaoko Udalak antzeko proiektu bat egin zuen, eta haren ondorioz herritarrei zuzendutako harrera zerbitzua finkatu zen. Orain, proiektu berri honekin, prozesu informatiko bakoitza modu ordenatu eta sistematikoan egiteko oinarriak finkatuko dira, herritarrenganako zerbitzuak hobetu ahal izateko.

Gaur egungo garaietara egokituz, lan honek herritarren eskubideak eta betebeharrak modu elektronikoa bideratzeko oinarriak finkatu behar ditu. Helburua honakoa izango da: izapideen inbentario eguneratu bat Internetez eskaintzea, eta, era berean, herritarrei informaziorako eta izapideetarako sarrera erraztea.

### Plan de empleo comarcal

Dentro de este plan coordinado desde Goieki, en Lazkao se han contratado dos personas para realizar trabajos de mantenimiento y obras. En el periodo 2018-2019 se mantendrá el mismo programa. Tal y como se ha hecho en 2018, se prevén dos contrataciones. En total, en la comarca habrá 18 contrataciones. El coste de estas 18 contrataciones en el programa 2018-2019 es de 265.501 euros. Lanbide hará una aportación de 201.155 euros. En Lazkao se invertirán 30.500 euros y se prevén unos ingresos de 22.350 euros.

### Convocatoria concurso oposición para cubrir la plaza de coordinador responsable de servicios

A la convocatoria se podrán presentar aquellas personas que tengan el grado de Arquitectura Técnica o Ingeniería Civil. Se pedirá el Perfil Lingüístico 3. Los que se presenten a las pruebas deberán superar una prueba teórica, otra práctica, una psicotécnica y una entrevista. Se valorará la experiencia y los cursos realizados.

### Manual de procedimientos administrativos

En colaboración con Eudel e IVAP, hemos dado comienzo al proceso para actualizar el manual de procedimientos administrativos que se den en Lazkao. Este proyecto tiene una duración aproximada de 9 meses y se realizará conjuntamente con los Ayuntamientos de Ibarra, Usurbil y Ormaiztegi.

Ya en 1993 el ayuntamiento realizó un trabajo similar que finalizó en la definición del servicio de atención al ciudadano. Ahora, a través de este nuevo trabajo, se pretende volver a la definición ordenada y sistemática de la información fundamental de cada proceso informático, de modo que repercuta en una mejor atención al vecino.

Con la actualización a los tiempos actuales, debe ser la base para facilitar el ejercicio de derechos y el cumplimiento de deberes por medios electrónicos. Hacer público a través de Internet de un inventario actualizado de los procedimientos, y facilitar, por tanto, el acceso a los vecinos y vecinas a la información y al procedimiento.

## → Euskaraldia

Euskal Herriko hainbat euskaltzale elkar-tek urteetan zehar landu duten "Euskarak 365 egun" lan ildoaren baitan kokatzen den egitasmoa da Euskaraldia, eta herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza ohiturak aldatzea du helburu. "Ahobizi" eta "Belarriprest" figuren bidez eragin nahi da.


2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo da eta Lazkaok bertan parte hartuko du. Dagoeneko dinamikaren inguruko hainbat bilera egin dira, eta epealdi horretan egingo diren hainbat ekintza zehazten ari dira.

Euskaraldia es una iniciativa creada en torno a la dinámica de trabajo "Euskarak 365 egun" impulsada por diferentes colectivos y asociaciones del País Vasco que trabajan a favor del euskara. El objetivo es cambiar las costumbres lingüísticas activando la población vascoparlante. Esto se realizará mediante las figuras "Ahobizi" y "Belarriprest".

La iniciativa se llevará a cabo del 23 de noviembre al 3 de diciembre y Lazkao participará en ella. Hasta la fecha ya se han realizado varias reuniones y ya se está trabajando en diferentes actividades que se llevarán a cabo.



## → Kanpainak / Campañas



Lazkaoko Udalak hainbat kanpaina egin ditu urteko lehen sei hilabete hauetan. Horien artean, azken hiru urteetan bezala, herriko festen bueltan. Zarataren, erasoen eta alkohol kontsumoaren inguruko kontzientziazio kanpaina egin da.

El Ayuntamiento de Lazkao ha realizado varias campañas durante el primer semestre del año. Tal y como lo viene haciendo en los últimos tres años, una de las campañas de concienciación se ha llevado a cabo en torno a las fiestas patronales, tomando como base el ruido, las agresiones y el consumo del alcohol.

## #ErabiliEgoki

Guztiona dena errespetatzeko kanpaina ere egin du udalak, #Erabiliegoki izenarekin. Hainbat gunetan araudia errespetatzeko kartelak jarri dira. Herriko gune publikoak modu egokian zaintzea eta herritarrak errespetatzea da kanpainaren helburua.

El Ayuntamiento también ha puesto en marcha la campaña #Erabiliegoki. El objetivo de la campaña es la concienciación para el adecuado uso de los espacios públicos y el respeto a las normas cívicas. Se han colocado varios carteles para pedir que se respeten y se cuiden las zonas públicas del municipio y los derechos de los vecinos.



**GARBI JOKATU**  
Pipa, txirle eta halakoak kanpora  
**JUEGA LIMPIO**  
Pipas, chicles y demás, fuera



**SASKIRATU ZABAORRA**  
Erabili zakarrontziak  
**ENCESTA LA BASURA**  
Utiliza las papeleras



**ERRESPETUZ JOKATU**  
JUEGA CON RESPETO



**ORDU TXIKIAK, MOLESTI HANDIAK**  
Ordutegia errespetatu  
**DE NOCHE LAS MOLESTIAS SE MULTIPLICAN**  
Respetar los horarios

Aipatutakoez gain, udaltzainek hainbat hitzaldi ere eman dituzte San Benito Ikastolan. Tartean, adibidez, bide hezkuntzari buruz edo alkoholaren eta bestelako drogen arriskuen inguruan. Ikastolarekin eta Ertzaintzarekin elkarlanean, sare sozialetan eta Interneten gaur egun dauden arriskuei buruzko hitzaldi bate ere antolatu zen Arerian.

Además de las mencionadas, municipales del Ayuntamiento de Lazkao han impartido varias charlas en la Ikastola San Benito en torno a educación vial, los riesgos del alcohol y otras drogas... Junto con la colaboración de la Ikastola y la Ertzaintza, se organizó una charla en Areria en torno a los riesgos que actualmente hay en Internet y en las redes sociales.

# 02 PERTSONA PERSONA

## → Gizarte zerbitzuak / Servicios sociales

### Larrialdi laguntzak Ayudas de emergencia

Batez beste, 28 familiak jaso dute larrialdi laguntza hilero. Laguntza hauetarako 31.448€ bideratu dira.

Un promedio de 28 familias han recibido ayuda de urgencia mes a mes. Para estas ayudas se han destinado 27.106€.

## 28 familia

### Etkez etxeko zerbitzua Servicio ayuda domiciliaria

Etkez etxeko zerbitzuan 44 izan dira onuradunak. Zerbitzu honetara 54.882€ bideratu dira.

44 personas han recibido ayuda domiciliaria, para lo cual se han destinado 54.882€.

## 44 pertsona

### Familia interbentzioak Intervenciones familiares

Familia interbentzioak 5 izan dira. Urtez urte gora doan zerbitzua da, eta aurten, ekainera arte 11.455€ bideratu dira.

En total ha habido 5 intervenciones familiares. Es un servicio que año tras año va en aumento, y por el momento, hasta mayo se han destinado 11.455€.

## 5 familia

### Etkez etxeko zerbitzuaren hitzarmena berri da GFA-rekin

Hitzarmen honen helburua etkez etxeko laguntza jasotzen duten pertsonen zein harreta behar duten beste kolektibo batzuei zuzendutako zerbitzuaren baldintzak zehaztea da.

- Erabiltzailearen gehienezko ekarpena: 15€. Gainerakoa administrazioak hartzen du bere gain.
- Harreta urteko 365 egunetan.
- Gehienezko harreta maila egunean 4 ordua zabaltzea.
- Berehalako sarrera modalitatea ezartzea.
- Baldintza hauetako batzuk azken zerbitzua adjudikatu zenetik ematen dira.
- Araudian hainbat aldaketa egin dira baldintza hauek bermatu ahal izateko.

### Se ha renovado el Servicio de Ayuda a Domicilio con la DFG

El objetivo del convenio es definir las condiciones para la financiación foral del Servicio de Ayuda a Domicilio prestado a personas caflificadas como dependientes así como a otros colectivos sujetos a atención.

- Aportación máxima por usuario: 15€. La diferencia la cubre la administración.
- Atención los 365 días al año.
- Ampliar la intensidad máxima a 4 horas al día.
- Establecer la modalidad de acceso urgente.
- Algunas de estas mejoras ya venían ofreciéndose desde la última adjudicación del servicio.
- Se han realizado las modificaciones reglamentarias para este fin.

### Kudeatu diren beste hainbat eskari / Otras peticiones que se han gestionado

Adineko pertsonentzat edo desgaitasuna dutenentzat laguntza teknikoak  
Ayudas técnicas para personas mayores o con discapacidad

23

Adineko pertsonentzako egoitza eskaerak  
Peticiones de centros para personas mayores

9

Adineko pertsonentzako egoitza aldaketak  
Traslado de centro para personas mayores

2

Aldi baterako egonaldia egoitzetan adineko pertsonentzat  
Estancias temporales en centros para personas mayores

9

Adineko pertsonentzako eguneko zentroa  
Centro de día para personas mayores

1

Indarkeria matxistaren ondoriozko laguntza psikologikoa

Ayuda psicológica para personas que han sufrido violencia machista

5

Familia inguruko zainketarako laguntza ekonomikoak

Ayudas económicas para cuidados de la familia

14

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak  
Prestaciones económicas para ayudas personales

23

Zerbitzuari lotutako laguntza ekonomikoak  
Ayudas destinadas a servicios

2

Diru sarrerak bermatzeko laguntzak

Ayuda económica para la garantía de ingresos

4

## → Berdintasuna / Igualdad

Gipuzkoako udalerrietan indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko protokoloarekin bat egin du Lazkaoko Udalak. Protokoloaren helburuak:

- Erantzun integral eta efikaz bat artikulatzea.
- Agente sozialen adierazpen bideak indartzea.
- Gaitzespen publikoa adieraztea, sensibilizazioan eragitea eta tolerantzia zero kultura indartzea.
- Biktimei atentzioa bermatzea.
- Emakumeen eskubideak eta askatasuna indartzea.

El Ayuntamiento de Lazkao se ha adherido al protocolo para la respuesta pública institucional ante la violencia sexista en los municipios de Gipuzkoa. Objetivos del protocolo:

- Articular una respuesta integral y eficaz.
- Reforzar el cauce de expresión de agentes sociales.
- Mostrar rechazo público, contribuir a la sensibilización y fortalecer la cultura de la tolerancia cero.
- Garantizar la atención a la víctima.
- Reforzar los derechos y la libertad de las mujeres.



**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ  
NO A LA VIOLENCIA  
CONTRA LAS MUJERES**

*Hiru elkarretaratze egin dira Lazkaon emakumeen aurkako indarkeria salatzen.*

*En Lazkao se han realizado tres concentraciones para denunciar la violencia contra las mujeres.*

### Egin diren bestelako ekintzak:

- Martxoaren 8ko ekitaldiak Berdintasun Batzordeak antolatuta: hitzaldiak, elkarretaratzea, trikipotea, "Emakumea eta artea" mahai-ingurua, ikastolarekin elkarlanean maitasun erromantikoari buruzko saioa Irantzu Varelarekin, mezu sexistek duten presentzia nabarmenak ohartarazteko kartelak...
- Festetako protokoloa: Eraso sexistak nola antzeman edo ekin edo antzemanaz gero kasua nola artatu jakiteko saioa egin zen Emagin elkartekoekin.
- "Trans-formatzen" dokumentala eta solasaldia: San Benito ikastolakoekin eta herritarrekin transexualitatearen inguruko lanketa. Trans mundua eta aniztasuna bezalako gaien inguruan hausnarketa egitea eta normalizatzea da dokumentalaren helburua.
- Lilatoirako kamisetak: "Lazkao emakumeak harro" goiburupean kamiseta bereziak banatu ziren Lilatoia lasterketan parte hartu zuten herriko emakumeen artean.

### Otras actividades realizadas:

- Actividades entorno al 8 de marzo: conferencias, concentraciones, trikipoteo, mesa redonda sobre "Mujer y arte", sesión formativa sobre amor romántico con Irantzu Valera y en colaboración con la ikastola, realización de carteles que muestran la amplia presencia que tienen los mensajes sexistas en el día a día...
- Protocolo de fiestas: Sesión formativa dirigida por Emagin para detectar y evitar agresiones sexistas y saber cómo actuar en caso de darse alguna agresión.
- Documental y charla "Trans-formatzen": El objetivo de esta iniciativa ha sido reflexionar y tratar de normalizar la transexualidad, el mundo trans y la diversidad. Se ha trabajado con la Ikastola San Benito y con la ciudadanía.
- Camisetas para la Lilaton: Con el lema "Lazkao emakumeak harro" se repartieron camisetas entre las mujeres de Lazkao que participaron en la carrera Lilaton.

## → Kultura / Cultura

### Zinema / Cine

Lehen sei hilabeteko zine emanaldietara 20.368€ bideratu dira. Urtarrilean saio bereziak eskaini ziren eta udan, iaz bezala, kalleko bi zine emanaldi antolatu dira: uztailaren 13an eta 20an. Durante el primer semestre se han destinado 20.368€ para las sesiones de cine. En enero se ofrecieron sesiones especiales y este verano, al igual que al año pasado, se han organizado dos sesiones de cine al aire libre: el 13 y el 20 de julio.

### Ikastaroak / Cursos

Lehen seihilekoan emandako dantza areto, yoga, robotika eta josten ikasteko ikastaroetan 105 pertsonak parte hartu du. En los cursos de bailes de salón, yoga, robotica y costura organizados durante el primer semestre han participado 105 personas.

IKASTAROA / CURSILLO	€
Robotika	1.710
Areto dantza / Bailes de salón	7.260
Yoga	3.300





## Bestelako ekintzak / Otras actividades

EKINTZA / ACTIVIDAD	€	EKINTZA / ACTIVIDAD	€
Gabonetako ekintzak: kabalgata, Astotxo eguna, kultur ekintzak... / Actividades de Navidad: cabalgata, Astotxo eguna, actividades culturales...	4.014	Ekitaldietako soinu eta argi kudeaketa Gestión de sonido y luces para diferentes actividades	4.499
Antsoategi (asto lehiaketa / concurso asnos)	5.000	Donostiako Orfeoia	9.905
Talde ezberdinek antolatutako ekitaldietarako soinu ekipoak / Equipos de sonido para diferentes actividades organizadas por grupos	3.043	Goazen!	6.578
Aurrentzako lau ipuin kontaketa saio Cuatro sesiones de cuentacuentos para niños	1.737	"Zuek nahi bezala"	2.320
LTME martxoko kultur astea Semana cultural de LTME	3.646	"Ez dok hiru"	4.898
		Zirikazirkus	1.815

## Diru sarrerak / Ingresos

Arerian izandako ekitaldietan guztira 13.405€-ko diru sarrerak egon dira.  
En los actos celebrados en Areria los ingresos son de 13.405€.



## → Festak / Fiestas

## APIRILAK 20 ABRIL

- Dultzainak / Dulzaineros ..... 726€
- Pelota txapelketa / Campeonato de pelota ..... 525€
- Musika taldeentzat soinu eta argi ekipoak  
Equipos de sonido y luces para los grupos de música ... 2.904€

## APIRILAK 21 ABRIL

- Dantzateke ..... 1.650€
- KPK Disko Karaokea ..... 908€
- Unidad Alavesa ..... 4.175€
- Musika taldeen soinu ekipoak / Equipos de música para los grupos de música ..... 13.273€

## APIRILAK 22 ABRIL

- Artisau azoka / Feria artesanía ..... 3.563€
- Dunbots txaraga ..... 1.186€
- Eriz magoa + Xaibor diskofesta ..... 1.870€

## APIRILAK 27 ABRIL

- Kros mistoa / Cross mixto ..... 3.277€
- Drindots ..... 2.904€

## APIRILAK 28 ABRIL

- Gari, Montxo eta Joselontxo. .... 1.485€
- San Prudentzio hamaiketakoa / Almuerzo ..... 700€
- Nogen. .... 3.025€
- Oihan Vega + Nogen soinu ekipoa / Equipio música .... 4.114€

## APIRILAK 29 ABRIL

- Haur parkea / Parque infantil ..... 3.300€
- Simuladorea + Master Chef tailerrak ..... 2.860€
- Sardina jana. .... 1.779€
- Kantu kolore + Ilargi Beltza ..... 4.114€

## APIRILAK 30 ABRIL

- Txirrindulari proba / Prueba ciclista. .... 4.012€
- Kiki, Koko eta Moko ..... 1.375€
- Sugarri txaranga ..... 2.372€
- Funbox Factory ..... 2.750€
- Tolin Mariatxia. .... 908€
- Toka txapelketa. .... 630€
- Brincadeira ..... 3.509€
- Pasarela orkesta ..... 7.744€

**MAIATZAK 1 MAYO**

- Bakailao txapelketa ..... 1.725€
- Urrezko aizkora ..... 2.476€
- Dantza sueltoko txapelketa ..... 1.922€
- Puro Relajo ..... 3.872€

**MAIATZAK 5 MAYO**

- Ansorregi eta Olarte ..... 726€
- Haur parkea / Parque infantil ..... 1.078€
- Potxin eta Patxin ..... 924€
- Txirrindulari proba ..... 2.725€

**MAIATZAK 6 MAYO**

- Jolasak eta ekintzak / Juegos y actividades ..... 1.520€
- Bertsolariak ..... 494€
- Izer eta Alabier ..... 500€
- Herri kirolak ..... 2.892€

**BESTELAKO GASTUAK ETA SARRERAK  
OTROS GASTOS E INGRESOS**

- Suziriak / cohetes ..... 468€
- Sariak, partaideei eta taldeei otorduak  
Premios y comidas a participantes y grupos ..... 4.059€
- Askotariko gatuak / Gastos varios ..... 304€
- Soinu equipo / Equipos de música ..... 544€
- Oholtzak alokatzea / Alquiler escenarios ..... 2.006€
- Komunak alokatzea eta mantenua  
Alquiler y mantenimiento de baños ..... 4.597€
- Lepoko zapiak / Pañuelos ..... 3.424€
- Iragakiak eta kontzientziazio kanpaina  
Publicidad y campaña de concienciación ..... 2.638€
- Programak / Programas ..... 3.595€
- Azpiegiturak: elektrikoa, iturgintza, montaje...  
Infraestructuras: electricidad, fontanería, montaje... 15.558€
- Iragarkien diru sarrerak / Ingresos por publicidad ..... 4.611€

**→ Kirola eta gazteria / Deportes y juventud****Kiroldegia / polideportivo**

Gaur egun kiroldegiak 3.051 bazkide ditu. Urteko lehen sei hilabetetan 18 ikastaro eman dira, eta guztira, 524 pertsonak parte hartu du. 69.107€ bideratu dira ikastaroetara.

A día de hoy hay 3.051 socios y socias en el polideportivo. Durante el primer semestre se han impartido 18 cursillos, en los cuales han participado 524 personas. Se contempla un presupuesto de 69.107 euros.

**Udako kirol kanpaina / Campaña de verano**

21 ikastaro eskaini dira aurten, guztira 718 ordu. Aurrekontua 26.300€-koa da.

Se han ofrecido 21 especialidades distintas con un total de 718 horas y un presupuesto de 26.300€.

**Gazteria / Juventud**

Urtarriletik apirilera gazteleku zerbitzua eskaini da larunbategian eta igandetan. Batez beste, 42 gaztek parte hartu du astebururo. Aste Santuan eta udan ludoteka zerbitzua eskaini da.

Desde enero hasta abril se ha ofrecido servicio de gazteleku los sábados y los domingos, en los cuales a participado un promedio de 42 jóvenes cada fin de semana. En Semana Santa y verano se ha ofrecido servicio de ludoteka.

Gazteleku zerbitzua Servicio gazteleku	<b>9.252€</b>
Aste Santuko ludoteka zerbitzua Servicio ludoteka Senama Santa	<b>1.974€</b>
Udako ludoteka zerbitzua Servicio ludoteka de verano	<b>30.513€</b>

**Bestelako gastuak / Otros gastos:**

Rally dirulaguntza	<b>1.300</b>	Igerileku estaligabea / Piscina descubierta	<b>10.526</b>
Triatloia	<b>475</b>	Futbol zelaia / Campo de fútbol	<b>4.093</b>
Instalazio, makineria eta tresneria mantenua Mantenimiento de equipamiento, maquinaria e instalaciones	<b>58.642</b>	Pilotalekuko toldoa / Toldo frontón	<b>1629</b>
Kiroldegia / Polideportivo	<b>44.023</b>	Aldageletako grua / Grua vestuarios	<b>7.520</b>

## ➔ Merkataritza, enplegua eta etxebizitza / Comercio, empleo y vivienda

### Merkataritza azterketa / Estudio sobre el comercio



Herriko merkatariekin eta ostalariekin elkarlanean, aurten ere Lazkaoko Udalak bultzatuta, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen ingururuko jardura planaren inguruko azterketa egin du IKEI taldeak. Herrian gauzaturako egitasmoen eta jardueren gauzatzeko maila altua dela nabarmendu du azterketak. Sektoreari eginiko galdeketa, besteak beste, Erosketa-Bonoa kanpainaren

balorazio positiboa nabarmetzen da. Horregatik, aurten ere, herriko merkatariekin elkarlanean, 40 euro ordainduta 50 euroko erosketak egiteko aukera izan dute herritarrek.

Nabarmenezkoa baita ere, azken urteetan herrian zabaldutako establezimenduen kopuruak gora egin duela batzuetan. Gainera, establezimenduen ia erdiak sol-datapeko langielak ditu, eta etorkizunera begira, lanpostu berriak sortzeko asmoa erakutsi du.

Respondiendo a la petición realizada por el Ayuntamiento de Lazkao, el grupo IKEI ha realizado un estudio sobre el plan de actividades del comercio, la hostelería y los servicios del municipio. El estudio subraya el alto nivel de las actividades y los programas realizados en Lazkao. Además, en la encuesta realizada en el sector, se valora de manera positiva la campaña de "Bonos de compra". Por ello, este año también ha habido la posibilidad de realizar compras por valor de 50 euros pagando 40 euros.

También hay que resaltar que el aumento del número de comercios en los últimos años. La mitad de estos comercios tiene empleados a sueldo, por lo que se asume que el sector genera empleo en el municipio. Se estima que en el futuro se crearán más puestos de trabajo.

### Singular dendak / Tiendas Singular



Gipuzkoako Merkataritza Federazioak bultzatuta, Singular Dendak egitasmoan parte hartu dute herriko hainbat merkatarik. Egitasmoaren helburua Gipuzkoako dendak lehiakoragoak izan daitezten lortzea da. Horretarako hainbat formatu saio egin dituzte merkatariek Lazkaon, Beasainen eta Ordizian. Emaitzak hobetzea lortu dutenek Singular Dendak ziurtagiria jaso dute. Uztailaren 10ean Lazkaon egindako ekitaldian herriko bi dendek jaso zuten ziurtagiria.

Impulsado por la Federación

Mercantil de Gipuzkoa, varios comerciantes de Lazkao han participado en el programa Singular Dendak. El objetivo del programa es conseguir que los comercios sean más competitivos. Para ello han realizado varias sesiones formativas en Lazkao, Beasain y Ordizia. Los que han conseguido mejorar los resultados han obtenido el sello Singular Dendak. En el caso de Lazkao han sido dos los comercios que han obtenido el sello. La entrega se realizó el 10 de julio en un acto celebrado en el ayuntamiento.

### Merkataritza laguntzak / Ayudas al comercio

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueren titularrek diru laguntza eskatu ahal izango dute 2018an zehar ireki edo berri duden jardura bategatik. Lazkaoko Udalak 2015-2019 Kudeaketa Planean jasotako helburu estrategikoen barruan dago herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzea. Hirugarren urtez emango du laguntza. Herriko merkataritza eta ostalaritza nabaritzen den dimensioari sostengua ematea da helburua.

Hosteleros y comerciantes de Lazkao podrán obtener ayudas por renovaciones en instalaciones o nuevas aperturas realizadas durante el 2018. Impulsar el comercio y la hostelería del municipio está recogido en el plan estratégico 2015-2019 del Ayuntamiento. Este es el tercer año que ofrece ayudas. El objetivo es apoyar el comercio y la hostelería local.

### Gazteentzako alokairu laguntzak / Ayudas para jóvenes para el alquiler

Lazkaoko Udalak gazteei zuzendutako diru laguntza bat onartu du 2018ko aurrekontuen barruan: herriko gazteak emantzipatu ahal izateko alokairurako laguntzak emango ditu. Diru laguntza 18 eta 35 urte arteko lazkaotarrei zuzenduta egongo da. 2018an 20.000 euro bideratuko ditu udalak diru laguntza honetara. Diru sarreraren arabera emango dira, eta 75 euro eta 300 euro artekoak izango dira hilean. Laguntzak 2018ko abenduaren 31 baino lehen eskatu ahalgo dira.

El Ayuntamiento de Lazkao ha aprobado una ayuda dirigida a los jóvenes de Lazkao dentro del presupuesto para el 2018: ayudas para el alquiler, con el objetivo de ayudar en la emancipación. La ayuda la podrán obtener los jóvenes de entre 18 y 35 años de Lazkao. En 2018 el Ayuntamiento destinará 20.000 euros a esta ayuda y se darán en función de los ingresos, y oscilarán entre 75 euros y 300 euros mensuales. La petición se ha de realizar en el Ayuntamiento antes del 31 de diciembre.

# 03 INGURUA ENTORNO

Lehen sei hilabete hauetan, iaz hasitako hainbat proiektu amaiera eman zaie. Bestetik, beste hainbat proiektu ere jarri dira martxan eta mantentze eta egokitze programekin jarraitu da.

Durante estos seis primeros meses del año, se han dado por finalizados varios proyectos del año pasado. También se han puesto en marcha nuevos proyectos y se ha continuado con el programa de mantenimiento y trabajos de mejora.

Gurutze, San Prudentzio eta saihezbidearen ondoko bide berriari amaiera eman zaio. Se han finalizado los trabajos de Gurutze, San Prudencio y el nuevo vial junto a la variante.



LAZKAOMENDIKO  
OINEZKO BIDEA

**141.752€**



ITURGAITZAGA-  
ANTZALDE

**883.890€**



GURUTZE

**694.959€**



SAN PRUDENTZIO

**297.788€**

Baserri bideak / Caminos rurales: **78.051€**



## Proiektu berriak / Nuevos proyectos



UHAITZ

**23.132€**

UHAITZ

**29.330€**

ARSA

**44.536€**

## Bestelako proiektuak / Otros Proyectos

IKASTOLAKO KANTXA  
CANCHA DE LA IKASTOLA**413.222€**UDALETXEKO TEILATUA  
TEJADO DEL AYUNTAMIENTO**130.006€**IKASTOLAKO KALDERAK ALDATZEA  
CAMBIO CALDERAS IKASTOLA**57.939€**

## LED argiteria / Alumbrado LED

Hiribarren, Elosegi eta Lazkao Txiki Ze-laian argiteria LED sistemara aldatu da. Inbertsioa 53.866€-koa izan da. Argiteria publikotik lapurtutako kobreaken gastua 7.500€-koa izan da.

En Hiribarren, Elosegi y Lazkao Txiki Ze-laia se ha cambiado la iluminación a LED. La inversión ha sido de 53.866€. El gasto por el robo de cobre en el alumbrado público ha sido de 7.500€.





### Beste mantentze eta egokitze lan batzuk Otros trabajos de mantenimiento

Baranda, farola eta bankuen pintaketa lanak Trabajos de pintura de bancos, farolas y barandillas	<b>9.802,00€</b>
Ez irristatzeko tratamenduak Tratamientos antideslizantes	<b>9.866,00€</b>
Umeen parkeetako egokitzeak Adecuación parques infantiles	<b>4.762,00€</b>
Ikastola: ez ohiko mantenu eta garbiketa lanak Trabajos extraordinarios de mantenimiento y limpieza	<b>8.539,00€</b>
San Prudentzio eta San Inazio: oinezkoentzat helduleku berriak / Pasamanos de apoyo para los peatones	<b>4.544,00€</b>

### Ur zerbitzua / Servicio de agua

- **Fugak:** Ur fugak detektatzeko kanpaina egin da, eta hainbat fuga garrantzitsu aurkitu dira. Horiek konpotzea 7.767€ kostatu da. Fugak konpontzeko urtean 8.500€-ko inbertsioa egin beharko dela aurreikusten da.
- **Kontadore aldaketak:** Azken urteetako programarekin jarraituz, kontadore aldaketaren kanpaina egin da. 11.399€-ko inbertsioa izan da.
- **Fugas:** Se han realizado campañas para la detección de fugas en la red de agua y se han podido detectar algunas fugas importantes. El arreglo de estos ha supuesto un gasto de 7.767€. Se prevé un coste anual de 8.500€
- **Cambio de contadores:** Como en los últimos años, se ha hecho una nueva campaña para actualizar los contadores. Se han invertido 11.399€.



### Jardineritza / Jardinería

Ohiko jardineritza zerbitzutik aparte, jardinera berriak atondu eta lorategien txukunketa ere egin da. Maiatzean erreka garbiketa sakona egin zen. Herriko puntu ezberdinetan, 119 zuhaitz landatu dira.

Además de los trabajos habituales de jardinería, se han arreglado las jardineras y los jardines. En mayo se limpio el río a fondo. Se han plantado 119 árboles en diferentes puntos del municipio.

Agauntzan aktuazioak Actuaciones en el Agauntza	<b>4.647,00</b>
Jardineritza lanak Trabajos de jardinería	<b>4.446,00</b>

### Agenda 21

Lazkaoko San Benito ikastolan Agenda 21 programaren barruan Lurzorua gaia landu dute aurten ere, iaz hasitako lanketari jarraipena emanaz. Gaia ikuspuntu ezberdinetatik landu dute, maila guztietan.

Gaiaren inguruan ikasleek zein ardura hartzen dituzten, eta Lazkaoko Udalak egin beharreko hainbat lan edo eginkizun proposatu dituzte.

El alumnado de San Benito Ikastola ha trabajado el tema del suelo dentro del programa Eskolako Agenda 21. En cada nivel escolar, han tratado el tema desde diferentes puntos de vista, y han presentado en el Ayuntamiento las conclusiones obtenidas. Han pedido la intervención del Ayuntamiento en varios puntos y el alumnado ha mostrado los compromisos que tomarán para mantener en buen estado todo lo relacionado con el suelo del municipio.



# PROIEKTU BERRIAK NUEVOS PROYECTOS

---

Ondorengo orrietan lehen sei hilabeteetan landutako hainbat proiekturen berri ematen da.

En las siguientes páginas se informa sobre varios proyectos puestos en marcha en los primeros seis meses.

→ JOSE LASAKO PARKEA / PARQUE JOSE LASA



Egungo egoera  
Situación actual





Umeentzako parke bat estaltzeko eskariari erantzun asmoz, lehenik herriko parke ezberdinek ematen dituzten aukerak begiratu ondoren, Jose Lasako parkean, bi gunetako bat staltzeko ideian sakondu da.

Proiektuaren ejekuzioa 150.000 euro ingurukoa izan daiteke.


Ante la demanda existente para cubrir un parque de juegos, tras analizar las posibilidades que los distintos parques ofrecen, se ha profundizado en la idea de cubrir una de las zonas de juego del parque de Jose de Lasa.

La ejecución del proyecto puede rondar los 150.000 euros.




Lantzen ari den proiektua nola gera litekeen agertzen duen argazki montaia. Fotomontaje donde se refleja como podría quedar el proyecto que se está trabajando.





## → ARESO - SAN INAZIO



luz hasitako lanari jarraipena emanez, Areso kaleko bidegorria luzatu egingo da Elosegi kalera arte. Bidegorriak banadutako bi noranzko izango ditu eta bien erdian eserlekuak eta zuhaitzak egongo dira. San Inazio zubitik gorako eremua, berriz, oinezkoentzako egokituko da.

Siguiendo con el trabajo que comenzamos el año pasado, se le dará continuación al bidegorri de la calle Areso, hasta la calle Elosegi. El bidegorri contará con dos carriles, y en la mitad de ambos se colocarán asientos y árboles. El tramo que sube desde el puente de San Ignacio se adecuará para los viandantes.





## → KIROLDEGIA - POLIDEPORTIVO

Joxemiel Barandiaran kiroldegia eraberritzeko proiektuaren barruan, iaz oinarritzko proiektua idatzi ondoren, orain, 5. fasea izango litzakenezaren egekuzio proiektua idazten ari da udala.

Fase honetan, barruko igerilekua, eta aldagelak berritzeko lanak jasotzen dira. Lanek, hiru gunetan izango dute eragina: egungo igerileku estalian, alboko tenis pistan eta barruko aldageletan.

Fase honetako lanak egekutatze aurrekontuaren aurreikuspena 4.909.000€-koa da.

Aurrera begira, hurrengo fase batean, estalitako igerileku berriaren gainean beste bi soilairu eraikitze aukera izango da.

### Egekuziorako aurreikustako aurrekontua (5.fasea)

**4.909.000€**


Dentro del proyecto de remodelación del polideportivo Joxemiel Barandiaran, tras haber redactado el año pasado el proyecto básico, ahora, se está redactando el proyecto de ejecución que corresponde a la quinta fase. En esta fase se recogen los trabajos de construcción de una nueva piscina cubierta, la remodelación de la actual, y la ejecución de unos nuevos estuarios. Los trabajos tendrán efecto en tres emplazamientos: la actual piscina cubierta, la pista de tenis continua a ésta y en los vestuarios.

El presupuesto estimado para la ejecución de esta fase es de 4.909.000€.


En un futuro será posible levantar dos nuevas plantas encima de la nueva piscina cubierta.

### Presupuesto de ejecución estimado (5º fase)

**4.909.000€**



*Egungo egoera  
Situación actual*



- Teniseko pista
- Pista de tenis


- Gaur egungo igerilekua
- Piscina actual

- Lehen solairuko gelak
- Salas primera planta


## IGERILEKU BERRIA / NUEVA PISCINA

Gaur egun dagoen tenis pistaren lekuan, sei kaleko igerileku estali bat eraikitzea jasotzen da proiektuan.

En el proyecto se prevé la construcción de una piscina cubierta de seis calles donde ahora está la pista de tenis.




## EGUNGO IGERILEKUA / PISCINA ACTUAL



Gaur egungo igerileku estalia tamainaz txikiagoa izango da, eta inguruan geratzen den lekuan sauna zein igerilekuarekin lotutako beste zerbitzu batzuk eskaintzeko eremua izango da.

La piscina cubierta actual se le reducirá el tamaño y en el espacio restante se creará una zona con sauna y otras instalaciones relacionadas con la piscina.

## ALDAGELAK / VESTUARIOS



Aldagelak lehen solairura mugituko dira eta gaur egun aldagelak dauden eremua beste zerbitzu batzuk eskaintzeko eremu bezala aprobetxatuko da.

Los vestuarios se moverán al primer piso y el espacio donde actualmente están los vestuarios se destinará como espacio multiuso para ofrecer otros servicios.



LAZKAOKO  
UDALA

*Ondo pasa uda!*